


Etxepare, Aldudeko medikua dibulgazio-liburua kalean dago jada

Lopez, Rakel

Marketin Saila/Elhuyar Fundazioa

Kepa Altonaga biologoak Etxepare medikuaren biografia idazteko proiektua aurkeztu zuen X. CAF-Elhuyar sarietara. Aurkeztu eta saria jaso. Urtebete luzez mediku eta idazle haren inguruko ikerketa egin ondoren, azkenean iritsi zaigu *Etxepare, Aldudeko medikua* liburua. Proiektua gauzatzeko, CAF-Elhuyarren irabazitako sariatz baliatu da Altonaga, baina liburua Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak argitaratu dute.



Etxepare, Aldudeko medikua biografia otsailaren 15ean aurkeztu zuten Euskaltzaindiaren egoitzan.

ALTONAGAK BERAK LIBURUAREN KONTRAZALEAN EMATEN DIGU EDUKIAREN BERRI: “Jean Etxepare medikua (1877-1935) guztiz apartekoa da gure letren historiako elizgizonen segida kolorebakoan. Liburu bi argitaratu zituen, *Buruxkak* (1910) eta *Beribilez* (1931). Lehenengoa biziki ausarta suertatu zen XX. mendehasierako Euskal Herri santu-jalean, eta Etxeparek etxeko selauruan bahituta gorde behar izan zuen. Areago, andre-gaiak berarekin hautsi omen zuen.

Ziurrenez, horixe da euskal literatura osoko jazokunerik erromantikoena. Aldudeko medikuaren bigarren liburuak, besteak beste zer-eta eboluzionismoa darama enkriptatuta lerro artean, Piarres Lafitte ondotox jabetu zenez. Aldudeko medikua *Haeckel eta Nietzsche bezalako batzuen liburu khiretseri lotu zen*. Kontuak kontu, barkadade intelektual erabatekoan higatu zen Jean Etxepareren bitizta”.

1994. urtean, zientzia-dibulgazioa sustatzeko CAF-Elhuyar sariak sortu zituzten CAF enpresak eta Elhuyarrek. Urtero zientzia-dibulgazioko artikulua saritzeaz gainera (hiru sari nagusi eta

gazteentzako sari berezi bat banatzen dira), bi urtetik behin dibulgazio-liburu bat idazteko beka bat ematen zaio proiektu onenari. Euskaltzaindiak eta EHUK argitaratu berri duten liburu honez gainera, beraz, beste bost liburu argitaratu dira: Arturo Elosegiren *Sexua eboluzioaren motore*; Jon Larrañagaren *Hegaztien migrazioa*; Kepa Altonagaren *Folin Markesa* eta *Armand David, pandaren aita* eta Iñaki Peñaren *Enpresen sorrera EAEn XXI. mende-atarian*. Horiez gain, beste bat ere bidean dago: Begoña Arratek XII. edizioan irabazi zuen proiektuarena, *Biziaren sarea ehuntzen*. 